

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Bezeroengana modu efiziente eta erakargarria batean gure zerbitzua iragartzeko erabiliko dugu interneta. Konkretuki erabiliko ditugu iragarki motzak eta begibistarako erakargarriak zein simpleak, ere "pop-up" bezalakoak. Hauek estrategikoki saiatuko gara kokatzen bidaiarekin erlazionatuta dauden beste web orrialdeetan bidaiatzean interesatuta dauden bezero potentzialak gure zerbitzua ordaintzeko.

Gure web orrialdearen bidez (www.gurpilotan.com), gure bezeroak ikus dezakete gure zerbitzuak eskaintzen duen guztia. Bidaia antolatzerakoan, web orrialdearen interfaz simplearen bitartez bezeroak zehaztu ahal dute noiz egingo den bidaia, zenbat egun, zein izango da haien irteera tokia, bidaiaren ibilbidea, bidaiarien kopurua, kapsulen kokapena eta helmuga. Ordainketa web orrialdearen bitartez burutuko da, bezeroak aukera dezake zenbat ordainketetan egingo duten ordainketa osoa eta hau kreditu txartela digitala zein beste ordainketa modu baten bidez, ala nola PayPal. Aukera dago bidaiaren seguru bat ordaintzeko, bidaia azkenean eta kanpo arazoan ondorioz ez balitz egingo, ordaindutako dirua bueltan izateko. Seguro simplea %25, seguro ertaina %50 eta seguro osoa %100 ordainketak bueltatzen du, prezioak web orrialdean zehaztuta daude. Bidaia ordaintzean bezeroari bidaliko zaio bere korreo elektronikora dokumentu PDF-a kode QR batekin, hori izango da bere bidaiatzeko tiket-a.



BIDAIATU NAHI DUZU?


GARRAIOIA ETA OSTAPENA BAT IZANDA?

PREZIO BAXUEKIN? Orduan sartu www.gurpilotan.com

Eta hasi bidaiatzen gaur!

GURPILOTAN
BIDAIATZA ERABILTZ GERTUO DA

Logo of Gurpilotan featuring a steering wheel and a house icon above a bus icon.



Gure zerbitzuaren puntu ahulak zeintzuk diren ezagutzeko eta gero zerbitzua hobetzeko, web orrialdearen bidez gurekin bidaiatu duten bezeroak galdetegi txiki bat bete ahal dute haien iritzia ematen izan duten esperientziari buruz. Iritzi konstruktiboen bidez joango gara hobetzen gure zerbitzua eta iritzi onak erabiliko ditugu gure zerbitzua iragartzeko, horrela bezero potentzialak ikusiko dituzte beste bezeroen iritzi onak.